

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-3962

10/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segur-tasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Sortzeko Legea Aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

EKAINAREN 27KO 10/1997 LEGEA, OSALAN, INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORALES-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA SORTZEKO LEGEA ALDATZEAKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Autonomia Erkidegoan erakunde asko dago gizarte eta lan-arazoez arduratzen dena.

Guztien artetik hiru erakunde aholku-emaile dira aipagarrienak:

- Consejo de Relaciones Laborales/Lan Harremanen Kontseilua, irailaren 30eko 9/1981 Legearen bidez sortu zena.

- Consejo Económico y Social Vasco/Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, azaroaren 15eko 4/1984 Legearen bidez sortu zena eta ekainaren 30eko 15/1994 Legearen bidez aldatu zena.

- Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segur-tasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusia, erakunde autonomoa bera sortzeko abenduaren 21eko 7/1993 Legean arautu-ta dagoena.

Gure gizartearen ustez zeregin publikoetan parte hartzea positiboa, integratzailea eta aberasgarria izanik, jakina, hiru horiek ez dira Administrazioako atea-gizartearen partaidetzara zabaltzen dituzten Autonomia Erkidegoko erakunde bakarrak, eta lan-esparruan parte hartzeko aukerak ematen dituztenak ere gehiago dira. Baina, hala ere, aipatutako horiek dira honako hiru ezaugarri hauek betetzen dituzten hiru erakundeak:

- Lege bidez sortu dituzte. Bereizgarri hori, esate baterako, ez du Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak betetzen.

- Denbora luzean irautekoak dira bai izaeraz eta bai borondatez. Eta Aurrekontu Legean agertzen den enplegu eta prestakuntzarako planen jarraipen-batzordeak, esate baterako, ez du ezaugarri hori betetzen, hau da, batzorde horrek legeak duen indarraldi bera izango du.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-3962

LEY 10/1997, de 27 de junio, de modificación de la Ley de creación de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segur-tasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euska-di que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 10/1997, DE 27 DE JUNIO, DE MODIFICACIÓN DE LA LEY DE CREACIÓN DE OSALAN, INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORALES - LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En el ámbito de la Comunidad Autónoma existe un amplio entramado institucional de carácter sociolabo-ral.

En este entramado destacan tres entes consultivos u organismos:

- El Consejo de Relaciones Laborales / Lan Harreman-en Kontseilua, creado por la Ley 9/1981, de 30 de septiembre.

- El Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, creado por la Ley 4/1984, de 15 de noviembre, modificada por la Ley 15/1994, de 30 de junio.

- El Consejo General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segur-tasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, regulado en la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, creadora del citado orga-nismo autónomo.

Evidentemente, en una sociedad en la que la partici-pación social en el quehacer público se entiende como un valor positivo, integrador y enriquecedor, con este listado no se agota la relación de órganos de la Comuni-dad Autónoma en los que se dan fórmulas de participa-ción social en el entorno administrativo, ni tan siquiera son los únicos en los que dicha participación se produce en el ámbito laboral, pero sí son los tres organismos en los que coinciden tres características:

- Han sido creados por ley formal. En ello se distin-guen, por ejemplo, del Consejo Vasco de la Formación Profesional.

- Tienen carácter y voluntad de permanencia, lo que les distingue, por ejemplo, de la Comisión de Segui-miento de los planes de empleo y formación que apare-ce en la ley de Presupuestos y que, en consecuencia, goza del mismo carácter temporal que ésta.

- Gaiak lan-arlokoak dira argi eta garbi (nahiz eta Consejo Económico y Social Vasco/Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bestelako gaiak ere aztertzen diren). Hori da, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan ditugun erakunde-mailako elkarguneetatik bereizten dituzten ezaugarri nagusia. Izan ere, elkargune horietako asko ez dira justu lan-arlokoak, nahiz eta ekonomia eta gizarteko ajenteek ere parte hartu (Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua, Drogamenpekotasunen Aholku Batzordea...). Beste batzuk, berriz, ekonomia eta gizarterako oso garrantzitsuak dira, baina ez dira «*stricto sensu*» lan-esparrukoak (Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua), edo, bestela, lan-arloko gaiak beste gai batzuekin tartekatzen dituzte (Euskadiko Eskola Kontseilua, beste askoren artean).

Horrenbestez, hasieran aipatutako hiru erakundeei dagokienez, alde batetik, badira gai batzuk erakunde horien araudietan berdin jasota ez daudenak, eta orain ezinbestekoa da kontraesan hori gainditzea, hau da, araudi denetan oinarritzko hatsapen jakin batzuk bete behar dira, erakunde guztietarako balioko dutenak. Eta beste alde batetik, sindikatuetakoa ordezkarien aukeraketa dela eta, aldaketa tekniko batzuk egin behar dira, egoera aldatu egin baita hauteskunde sindikalen sistema aldatu zenez geroz, hau da, maiatzaren 19ko 11/1994 Legea onartu zenetik hona.

Oinarritzko hatsapen horietan dago, laburbilduta, lege-aldaketaren funtsa. Hona hemen hatsapen horiek:

1.- Erkidegoan ordezkartzarik handiena eta gutxieneko ordezkartza bat duten sindikatu guztiek egon beharko dute lan eta gizarte-arloko partehartze-erakunde guztietan.

Horrela egingo ez balitz, ordezkartza erren geratuko litzateke eta, beraz, erakundearen izaera bera zalan-zalan izango genuke.

2.- Erakunde horien barruan sortzen diren organo guztietan ere (batzorde, kontseilu, organo betearazle eta abarretan), erkidegoan ordezkartzarik handiena eta gutxieneko ordezkartza bat duten sindikatu guztiek egon beharko dute, organo horiek araudiz edo barruko arau bidez sortzen badira ere.

Hatsapen honek aurrekoa osatzeko balio du, ordezkartza maila guztietara zabaltzea lortuko da eta. Horrela, aginpideak azpiko beste organo baten eskutian uzten direnean ere, erabakiak hartzeko orduan sindikatuak behar besteko ordezkartza izatea lortuko da.

3.- Lortutako akordioarekin konforme ez dauden antolakundeek, oro har, boto partikularra adierazteko aukera izan behar dute. Boto hori akordioari erantsi beharko zaio beti.

4.- Hauteskunde sindikalen sisteman gertatu den aldaketa horrek aukeraketa-sistema jarraia ekarri digu, eta orain behar-beharrezkoa da halako baliabideren bat zehaztea edozein organo sortu edo berritzen den momentuko ordezkartza isla dadin organo horien osae-

- Se trata de materias inequívocamente laborales (aunque en el Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea no de forma exclusiva). Éste es el principal rasgo diferenciador respecto a los distintos organismos de encuentro de que disponemos en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Existen muchos de ellos que no son claramente laborales, y en los que no obstante existe presencia de los agentes económicos y sociales (Consejo Vasco de Bienestar Social, Consejo Asesor de Drogodependencias...), y otros que tienen una trascendencia económico-social importante pero que, o no son «*stricto sensu*» laborales (Consejo Vasco de la Función Pública), o su carácter laboral constituye una más de las posibles facetas a discutir en esos organismos (Consejo Escolar de Euskadi, entre otros muchos).

Refiriéndonos por tanto a los tres organismos citados al principio, el análisis del articulado de sus normativas reguladoras da lugar a que, de una parte, se perciban diferencias de tratamiento en algunas materias que suponen una contradicción que debe ser salvada, de forma que se establezca una regulación que responda a unos principios básicos aplicables a todos los organismos, y, de otra, se hace precisa la realización de alguna reforma de carácter técnico en la designación de los/as representantes sindicales, como consecuencia de la nueva situación creada por la modificación producida en el sistema de elecciones sindicales por la Ley 11/1994, de 19 de mayo.

Esos principios básicos a los que hacíamos referencia en el párrafo anterior sintetizan el espíritu de la reforma, y son:

1.- En todos los entes u organismos de participación existentes en materia socio-laboral que se definan deberán tener presencia todos los sindicatos representativos y más representativos de la Comunidad.

Lo contrario supone un defecto de representación que desvirtúa su propio carácter.

2.- En todos los órganos que se creen, bien reglamentariamente o bien por reglamentos internos (comisiones, consejos, órganos ejecutivos, etc.), en el seno de los organismos antes citados, deberán igualmente tener presencia todos los sindicatos representativos y más representativos de la Comunidad.

Este principio complementaría el anterior haciendo que esa representatividad se produzca en todos los niveles. Se logrará así que la delegación de facultades en órganos inferiores no desvirtúe la presencia sindical representativa en todas las decisiones.

3.- Se debe establecer con carácter general la posibilidad de que las organizaciones discrepantes del acuerdo adoptado realicen voto particular que se adjunte siempre a dicho acuerdo.

4.- Dada la modificación producida en el sistema de elecciones sindicales a que antes hacíamos referencia y que nos ha llevado a un procedimiento de elección continua, es preciso establecer un mecanismo por el cual la composición de los diferentes órganos refleje la repre-

ran. Ordezkaritza-maila horrek, gainera, osaera edo berrikuntza horrek irauten duenerako balioko du.

5.- Azkenik, erreformaren barruan bada beste alderdi bat, hatsapen orokor edo erabatekoa ez izanagatik ere, derrigorrez aipatu behar dena, hau da, lan eta gizarte-arloko organoetan sindikatuek duten boto ponderatua, taldekako botoari lotuta dagoena derrigorrez.

Partaidetzako erakunde batzuetan sindikatu-botoari ateak zabaltzea, betiere sindikatu bakoitzak duen ordezkaritza-maila kontuan hartuta, Euskadiko gizarte eta laneko errealitatearen ezaugarri berezi bat dela esan daiteke, zalantzarik gabe elementu positibo bat dakarrena: sindikatuen boto ponderatuari esker, akordioetara heltzeko orduan sindikatuen ordezkaritza-maila askoz ere zehatzago hartuko da kontuan.

Berezitasun horrek, gainera, nahikoa sostengu ere badu, bai Eusko Legebiltzarraren aldetik (aipatutako berezitasun hori lehenengoz jaso zuen ekainaren 30eko 15/1994 Legea, Consejo Económico y Social Vasco/Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Legea Aldatzen duena) eta baita sindikatuen aldetik ere, eredu hori aukeratu baitzuten etengabeko prestakuntza kudeatzeko organismorako.

Egia da, hala ere, hatsapen hori sindikatuek parte hartzen duten erakunde guztietara zabaltzeak itxuragabekeria ugari ekar ditzakeela. Kontuan izan, esate baterako, zer gertatuko litzatekeen Euskadiko Eskola Kontseiluaren moduko organo batean hatsapen horri kasu egiteko erabakia hartuko balitz, kontseilu horretan sindikatuen ordezkaritza beste ordezkaritza askoren arteko bat besterik ez baita, hortxe ditugu eta, sindikatuekin batera, gurasoak, ikasleak, irakasleak, administrazioa, arloko enpresarioak e.a.). Eta, beste alde batetik, sindikatuek ere zurrunago jokatu beharko lukete, eta hori ez da oso zentzuzkoa parte hartzen duten organo guztien kasurako.

Argi dago zein den orain arte azaldutako guztiaren ondorioa, hau da, boto ponderatuak kasu bakar baterako balio duela: organoaren izaera eta helburu bereziak direla-eta sindikatuaren jarrera talde gisa adierazi behar bada eta sindikatuak ordezkaritza gutxi-asko edukitzeak ez badu zerikusirik lortutako boto-kopuruarekin.

Hatsapen horietan oinarrituta aldatu behar dira aipatu ditugun hiru arauak, nahiz eta, legegintzako arrazoi teknikoak direla medio, hiru lege-egitasmo egin behar izan, erreforma honek egoera ezberdin asko ekarriko dituela kontuan hartuta.

Lege-egitasmo honek Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusia besterik ez du aldatzen.

Consejo Económico y Social Vasco/Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen eta Consejo de Relaciones Laborales/Lan Harremanen Kontseiluaren kasuan beste lege-testu berri bat egitea komeni zela erabaki bada ere, azpimarratzekoa da Osalan, Insti-

sentatibidad que se ostenta en el momento de su creación o renovación, manteniéndose esa representación para todo el periodo de duración de la citada composición o renovación.

5.- Por último hay un aspecto de la reforma que, aunque no tenga el mismo carácter de principio general o absoluto merece ser destacado. Se trata de la cuestión del voto ponderado en la parte social de los órganos socio-laborales, inexorablemente unida al voto por grupos en los mismos.

El establecimiento del voto sindical en determinados entes u organismos de participación, en función de la representatividad que cada organización ostente, puede definirse como una peculiaridad de la realidad socio-laboral de Euskadi, que aporta un elemento indudablemente positivo: el voto sindical ponderado supone tener en cuenta la representatividad sindical de forma mucho más exacta en la adopción de los acuerdos.

Esta peculiaridad, además, ha obtenido el respaldo suficiente tanto del Parlamento Vasco (Ley 15/1994, de 30 de junio, de modificación de la ley del Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, en la que se instituyó por primera vez) como de las propias organizaciones sindicales, que así lo acordaron para el organismo de gestión de la formación continua.

No es menos cierto, no obstante, que la generalización de este principio a todos los entes u organismos en los que haya presencia sindical, de una parte, podría conducir a situaciones absurdas (piénsese en una decisión de este tipo en un órgano como el Consejo Escolar de Euskadi, por ejemplo, en el que la presencia sindical es una más en un foro de participación amplísimo - padres, alumnos, profesores, administración, empresarios sectoriales, etc.-), y, de otra parte, supone una rigidez en la capacidad de actuación y maniobra de las distintas organizaciones sindicales que no es comprensible en todo tipo de órganos en los que participen.

La consecuencia de todo lo expuesto hasta ahora es evidente: sólo en aquellos órganos en los que por su especial naturaleza y funciones la posición del grupo sindical deba ser expresada como tal grupo y en los que la composición personal del mismo no respete la representatividad sindical obtenida puede establecerse el voto ponderado.

En base a esos principios deberán modificarse las tres normas citadas, si bien razones de técnica legislativa, ante las distintas situaciones que esta reforma supone, conllevan la necesidad de realizar tres proyectos de ley distintos.

El presente proyecto de ley modifica exclusivamente el Consejo General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

Es necesario destacar que, a diferencia de lo que sucede con el Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea y con el Consejo de Relaciones Laborales / Lan Harremanen Kontseilua, con respecto a los cuales se ha conside-

tuto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen kasuan erakundea bera sortzeko erabili zen legea aldatzea erabaki dela, beti ere, honako bi helburu hauek lortzeko asmoz:

- Lege-aldaketa ekarri duten lau hatsapenak, dagoneko azalduta daudenak, indarrean jartzea.

- Sindikatuen ordezkari-kopurua bosteraingotzea. Bestela, alderdi bakoitzerako aukeratu zen ordezkari-kopuruaren arabera, Erkidegoan ordezkari-tzarik handiena duten sindikatu-tako batek kanpoan geratu behar zuen. Beste alderdi-tako ordezkari-kopurua, hau da, enplegu-emaile eta administrazio-ko ordezkari-kopurua ere handiagotu egingo da neurri berean.

Lehenengo atala.

Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari buruzko abenduaren 21eko 7/1993 Legeko 1. artikulua honako idazkera hau du:

«1. atala.

Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzen da administrazio-ko autonomiadun erakunde modura. Lege-nortasuna izango du eta iharduteko gaitasun osoa. Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari atxikiko zaio. Euskal Autonomi Elkarteko aginteei, laneko ingurugiroak berez dituen arriskuen arazoak jatorrian ezabatu eta, posible ez denean, arriskuen arazoak jatorrian gutxitzeko asmotan, laneko segurtasun, higie-ne, ingurugiro eta osasunaren arloari buruz ezarriko dituzten arauak kudeatzea izango da erakunde horren helburua».

Bigarren atala.

Abenduaren 21eko 7/1993 Legeko 6. ataleko 2 eta 3. lerroaldiak (lege horren bidez sortu zen Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) honela idatzita geratuko dira:

«6. atala.

2.- Era berean, honako hauek izango dira kideak:

a) Sindikatuen eta sindikatu-konfederazioen aldetik, bost ordezkari. Bost horien artean Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari-tzarik handiena eta gutxieneko ordezkari-tza duten sindikatuak eta sindikatu-konfederazioak aukeratu-tako ordezkari-ek egon beharko dute sindikatu eta konfederazio bakoitzaren ordezkari-tza-mailaren arabera. Gutxieneko ordezkari-tza hori langile-ordezkari-ek eta enpresa-batzorde-tako eta herri-administrazioen zerbitzura diharduten langileei dagozkien ordezkari-tza-organoetako kideen %10 edo gehiagokoa izango da eta kontseilua osatu edo berri-tzen denean neurtuko da. Neurketa eta homolo-

rado conveniente la elaboración de un nuevo texto legal completo, en el caso del Consejo General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, se ha estimado procedente acudir a una modificación de la ley de creación del organismo con el fin de dar cumplimiento a un doble objetivo:

- introducir los cuatro primeros principios inspiradores de la reforma anteriormente expuestos;

- aumentar a cinco el número de los/las vocales de la parte social, puesto que, dado el número de vocales que se había establecido para cada parte, quedaba excluido uno de los sindicatos más representativos de la Comunidad, incremento que conlleva el correlativo aumento de los/las vocales de la parte empleadora y de la Administración.

Artículo primero.

El artículo 1 de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, de creación de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 1.

Se crea Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, como organismo autónomo administrativo, ostentando personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar, adscrito al Departamento de Trabajo y Seguridad Social, con la finalidad de gestionar las políticas que en materia de seguridad, higiene, medio ambiente y salud laborales establezcan los poderes públicos de la Comunidad Autónoma, tendentes a la eliminación en su origen y, cuando no sea posible, reducción en su origen de las causas de los riesgos inherentes al medio ambiente de trabajo».

Artículo segundo.

Los párrafos 2 y 3 del artículo 6 de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, de creación de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, quedan redactados de la siguiente forma:

«Artículo 6.

2.- Así mismo, estará integrado por los/las siguientes vocales:

a) Por la parte social, cinco representantes de las organizaciones y confederaciones sindicales. En dicha representación debe incluirse en cualquier caso la presencia de representantes designados por las organizaciones y confederaciones sindicales que ostenten la condición de más representativas y las representativas que hayan obtenido el 10% o más del total de delegados de personal y miembros de comités de empresa y de los correspondientes órganos de representación del personal al servicio de las Administraciones Públicas, en el momento de la constitución o renovación del órgano, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vas-

gazioa Eusko Jaurlaritzak egin beharko ditu.

b) Enplegu-emaileen aldetik, erabili beharreko arau orokorren arabera enpresarioen erakunde-ordezkaritza duten Euskal Autonomia Erkidego-ko enpresa-elkarteen izenean, hiru kide; beste kide bat Euskadiko Kooperatiben Konfederazio-ko ordezkarria izango da, eta beste bat Eusko Jaurlaritzak aukeratuko du, udalen eta foru-aldundien iritzia entzun ondoren.

3.- Kontseilu Nagusiko kideak izango dira, era berean, Osasun Saileko bi ordezkarri -bietako bat Kontseiluko lehendakariordea izango da- eta Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantz Saileko beste hiru ordezkarri, denak ere gai honetan duten gaitasunaren arabera aukeratuko direnak».

Hirugarren atala.

Abenduaren 21eko 7/1993 Legeko 6. atalean (lege horren bidez sortu zen Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) beste lerroaldi bat gehitu da, zortzigarrena:

«6. atala.

8.- Kontseilu Nagusiko kideak lau urterako aukeratuko dira, eta berriro ere aukera daitezke.

Hala ere, Kontseiluan parte hartzen duten sindikatu, korporazio eta erakundeek beren ordezkarriak aldatzeko aukera ere izango dute. Horrelako ordezketarik bada, kide berriak aurreko ordezkarriaren kargualdia amaituko du, hau da, goiko lerroaldian aipatutako lau urteak amaitzeko falta zitzaion denboraldia beteko du».

Laugarren atala.

Abenduaren 21eko 7/1993 Legeko 8. ataleko lehen lerroaldiari (lege horren bidez sortu zen Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) 1 zenbakia erantsi zaio eta, era berean, bigarren lerroaldi bat ere gehitu da:

«8. atala.

2.- Batzorde horien osaeran eta antzeko beste edozein organorenean -halakorik sortzen bada behinik behin-, 6.2 a) atalean aipatutako sindikatu eta sindikatu-konfederazio guztiek ordezkatu egon beharko dute».

Bosgarren atala.

Abenduaren 21eko 7/1993 Legean (lege horren bidez sortu Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) 8 bis) atala gehitu da:

«8 bis) atala.

1.- Bai Kontseilu Nagusian, bai batzordeetan eta baita antzeko beste edozein organotan ere -

co, según cómputo y homologación realizados por el Gobierno Vasco, y en proporción a su representatividad.

b) Por la parte empleadora habrá tres en representación de las asociaciones empresariales de la Comunidad Autónoma vasca que ostenten la representación institucional de los empresarios según la normativa general de aplicación, uno de la Confederación de Cooperativas de Euskadi y uno por designación del Gobierno Vasco, oídos los ayuntamientos y diputaciones forales.

3.- En razón de su competencia en la materia, serán vocales del Consejo General dos representantes del Departamento de Sanidad, uno de los cuales será el Vicepresidente, y tres representantes del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social».

Artículo tercero.

Se adiciona un nuevo párrafo 8 al artículo 6 de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, de creación de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea:

«Artículo 6.

8.- Los miembros del Consejo General serán designados por un periodo de cuatro años, sin perjuicio de su reelección.

No obstante, las organizaciones, corporaciones o entidades representadas en el citado Consejo podrán sustituir las personas que hubieran designado como miembros. La persona designada permanecerá en el cargo el tiempo que restare a la que sustituye hasta el cumplimiento del plazo de cuatro años citado en el párrafo anterior».

Artículo cuarto.

Se adiciona al artículo 8 de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, de creación de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, el guarismo «1» a su primer párrafo, así como un nuevo párrafo 2:

«Artículo 8.

2.- En la composición de dichas comisiones, así como en la de cualquier otro órgano de la misma naturaleza que pudiera llegar a crearse, deberá establecerse la presencia de todas las organizaciones y confederaciones sindicales a que hace referencia el artículo 6.2 a)».

Artículo quinto.

Se adiciona un nuevo artículo 8 bis) a la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, de creación de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea:

«Artículo 8 bis).

1.- Tanto en el seno del Consejo General como en el de las comisiones u órganos de análogo

halakorik sortuko balitz behin behin-, akordioak hartzeko gehiengo soila behar da, hau da, bertaratu diren gehiengoa, betiere dena delako organoa balio osoz osatu ondoren.

2.- Hartutako akordioekin konforme ez dauden kideek boto erreserbatua adierazteko aukera dute gai horren gainean duten iritzia azaltzeko. Hartutako akordioan boto horren berri jaso beharko da beti».

Seigarren atala.

Abenduaren 21eko 7/1993 Legeko laugarren xedapen gehigarria (lege horren bidez sortu zen Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) indarririk gabe geratu da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. - Indarraldiaren hasiera.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bigarrena. - Epearen hasiera.

Lege honetako bigarren atalean aipatutako lau urteko epea legea indarrean jartzen denetik aurrera hasiko da.

Hirugarrena. - Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusia berritza.

Lege hau indarrean jarri eta hilabetera, Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusiaren zati bat berritu egin beharko da, osara legeko lehen atalean erabakitakora egokitzeko.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, mila bederatzehun eta laurogeita hamazazpiko uztailaren hamalauan.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

ga naturaleza que pudieran llegar a crearse, los acuerdos se adoptarán por mayoría simple, entendiéndose por ésta la mayoría de los miembros presentes, siempre que el órgano esté válidamente constituido.

2.- Los miembros que discrepen de los acuerdos adoptados podrán formular su voto reservado, expresando su parecer sobre la cuestión planteada, que en todo caso deberá constar junto al acuerdo adoptado».

Artículo sexto.

Se deroga la disposición adicional cuarta de la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, de creación de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. - Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda. - Cómputo de plazo.

El plazo de cuatro años a que se refiere el artículo segundo de esta ley empezará a contar a partir de la entrada en vigor de la misma.

Tercera. - Renovación del Consejo General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea

En el plazo de un mes desde la entrada en vigor de esta ley se procederá a una renovación parcial del Consejo General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, para adecuar su composición a lo dispuesto en el artículo primero de la misma.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a catorce de julio de mil novecientos noventa y siete.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.